

Prentsa Oharra **Nota de Prensa**

Indesa enplegu zentro bereziak 80 pertsona kontratatu behar ditu udako kanpainarako

Kontratatzan dituen langileak lurraldeko zenbait udalerritan arituko dira, sukalde, garbitegi eta garbiketa arloetan

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 13a. Indesa Enplegu Zentro Bereziak hautaketa prozesu bat jarri du abian 80 pertsona kontratatzeko, udako kanpainan (ekainetik irailera, biak barne) sukalde, garbitegi eta garbiketa arloak indartzeko.

Indesak Gasteizen, Laudion, Oionen, Amurrión eta Agurainen kudeatzen dituen zentro eta zerbitzuetako behargin lanpostuak betetzeko egingo dira kontratazioak.

Enplegu zentro berezia denez, desgaitasuna duten pertsonen emango zaie lehentasuna kontratatzean; izan ere, Indesak dibertsitate funtzionala duten pertsonen enplegu egonkorra eta kalitatezkoa emateko helburua du, pertsona horien erabateko laneratzeari eta gizarteratzeari ahalbidetzeko. Nolanahi ere, desgaitasunik ez duten pertsonen ere parte hartu ahal izango dute deialdian, baldin eta desgaitasuna duten pertsonen lanpostu guztiak betetzen ez badituzte.

Indesa irabazteko xederik gabeko sozietate bat da; Arabako Foru Aldundiak du partaidetza handiena eta lurraldeko beste zenbait administrazio publikok eta Eusko Jaurlaritzak ere badute partaidetza. Mila pertsonatik gora daude plantillan, eta horien % 90 desgaitasuna duten pertsonak dira. Hori dela eta, Indesa Arabako erreferentziazko enplegu zentro berezia da eta lurraldean era horretako enplegua sortzen duen entitate nagusietako bat.

Zenbait zerbitzu eta industria ekimenen bidez gauzatzen du jarduera, besteak beste, gizarte etxeen garbiketa, ospitaletako garbitegiak, egoitzetako sukaldeak, lorezaintza, dokumentuen kudeaketa, Forondako aireportuko kafetegia, industriarako tailer osagarriak eta administrazio publikoei zein enpresa pribatuei zerbitzuak ematea. Enpresaren eredia prestakuntza eta laguntza ematean eta ibilbide pertsonalizatuak sortzean oinarritzen da, pertsona bakoitzak garapen profesionala izan dezan eta komunitatean bete-betean parte hartu ahal izan dezan.

Norajon

Lanpostu horietakoren bat lortu nahi dutenek beren curriculum vitae bidali dezakete helbide elektroniko honetara: Indesa2010.portaldeempleo@araba.eus